

BAKARRA DA, BERDETU EZAZU

Gu batxillergo 1eko ikasleak gara eta klima aldaketaz eta gure planetak berotegi efektuaren ondorioz pairatzen dituen ingurumen arazoengatik kezkatutik gaude, hauek gizakiek sortutako berotegi efektuaren ondorioz sortuak izan direlako. Francisco Javier de Landabururen *Europari buruzko 13.saria* izeneko lehiaketan parte hartzea erabaki dugu; aurtengo gaia klima aldaketa eta Europar Batasunaren ekarpena da, gai honek asko arduratzen gaituenez, uste dugu aukera ona dela beharrezko ekintza honen partaide izatea.

Lehenik eta behin, denon artean adostu dugu bakoitzak lanaren zer zati egingo duen eta nola egin genezakeen. Gida eta aurkezpena zatirik errazena iruditu zitzaizkugun, beraz, hortaz arduratzen diren pertsonak besteek beren zatiekin laguntzeko aukera izan zuten haien lana amaitzean. Zatirik zailenak iragarkia eta ikerketa dira, horregatik, ideia ugari eman genizkien horien arduradunei haien lana errazteko.

Hau egin ondoren, lana banatu genuen; gutako bakoitzak nahiago genituen gauzak aukeratu genituen. Hala ere, nahiz eta bakoitzak bere zatia izan, besteak ere lagundu genituen, taldeko lan bat baita. Itsasok powerpointa aukeratu zuen, Olatzek gida egin zuen, Jonek ikerketa aukeratu zuten, Jonan eta Elenek kanpaina egin zuten, Oihanek horma irudia egin du, Uxuek iragarkia aukeratu zuen, Aitorrek elkarriketak egin zituen, Alvarok ekintza egin zuen eta nik, Miren, dokumentua egin nuen.

Guk aurkeztuko dugun dokumentua euskaraz bakarrik egongo da, ez baitugu paper gehiegi xahutu nahi. Horren ordeztu, gure beste lanetarako linkak utziko dizkizuegu hemen:

- Euskarazko bertsioa:

https://docs.google.com/document/d/1Dpnf8PkXPhJa8_ec9QTsWASw8KUWF0bULi78JBLMiM/edit?usp=sharing

- Gaztelerazko bertsioa:

<https://docs.google.com/document/d/1snGOi3py3sISzBRys09Wj9Wz-HOoCV9me7jp-IZZzDU/edit?usp=sharing>

- Ingeleseko bertsioa:

https://docs.google.com/document/d/1sx1z3OxRNtdCxy_Ej80OKO5aRjzl-BhmbpnHOkDe9ZA/edit?usp=sharing

ITSASO:

Itsasok powerpoint bat egin zuen aldaketa klimatikoaren inguruko gai desberdinak azalduz. Hogei diapositibako powerpoint bat egin zuen, non zer den, zerk eragiten duen, eta saihesteko hartzen ari diren neurriak azaltzen dituen.

Lehenik eta behin, interneten klima aldaketaren inguruko informazio orokorra bilatu zuen. Ondoren arazoa konpontzen saiatzeko egin diren konferentziei buruzko informazioa bilatu zuen, adibidez COP21 eta Kyoto eta Rioko konferentziak. Gero, jendeak etxean gutxiago kutxatu ahal izateko jarraitu ditzakeen aholku batzuk aurkitu zituen eta azkenik, lortutako informazioa power point batean bildu zuen. Behin power pointa amaiturik, hiru klaseko kidek hirugarren DBHko ikasleen aurrean aurkeztu zuten powerpointa. [INGELESEZ](#) / [GAZTELERAZ](#) / [EUSKARAZ](#)

Olatzek aurkezpena gaztelerara itzultzen lagundu zion eta Nerea eta Uxuek petxa kutxa bat egin zuten, hau testurik gabeko aurkezpena jendearen aurrean aurkezteko. [PETXA KUTXA](#)

OLATZ:

Olatzen lana gida egitea zen. Ez zen oso zaila izan. Gela Kideek aurkitutako link guztiak elkartu zituen. Ondoren, behar den informazioa aurkitzea errazagoa izateko, link guztiak begiratu eta sailkatu zituen. Beste gai bati buruzko informazio gehiago behar zuenean, informazioa bilatzen egon ginen egunean egon ez zirenei eskatu zien beste zerbait bilatzeko, denok parte hartu zezaten. Ez zuen arazo handirik izan informazioa aurkitzerakoan, baina interneta ez zebilen oso ondo eta irakaslea deitu behar izan zuen arazoa konpon zezan. Azkenean, behar genuen guztia lortu genuen.

Hemen dugu bere lanaren emaitza. [GIDA](#)

JON:

Proiektu honetan Jonek ikerketa bat egin du klimak, gure inguruan eta beste edozin eremutan, jasan dituen aldaketak azaltzeko. Ondoren, Espainian eta Txinan izan diren klima aldaketak alderatu ditu.

Aldaketa klimatikoari buruzko artikulua aurkitu zituen Txinako berotegi efektuari, Txinako ipar-mendebaldeko duela gutxiko nahiz etorkizuneko aldaketa klimatikoari, instituzioen rolari eta aldaketa klimatikoaren proiektioei buruz Mediterraneo inguruan eta beste zenbait gunetan. Ondoren, informazio guztia aztertu eta ondorioak atera zituen.

Hasieran, Donostian eta Beijinen izandako aldaketa klimatikoak alderatzea pentsatu zuen, baina informazioa arreta handiagoz aztertu ondoren, ez zegoela behar beste informazio ikusi zuen. Horregatik gune handiagoak aztertzea, Txina, Espainia eta ingurune Mediterraneoan adibidez, ikertzea erabaki zuen.

Ez zuen arazorik izan ikerketaren inguruan informazioa bilatzean eta berridaztean. Nahiko denbora luzea behar izan zuen lana bukatzeko, baina ondo moldatu zen.

Hona hemen ingelesez, euskaraz eta gazteleraz Jonek egindako lana. [IKERKETA / RESEARCH / INVESTIGACIÓN](#)

JONAN&ELENE:

Jonan eta Elenek Europaren eguna ezagutaraztea eta beste kultura eta herrialde Europarrekin elkarkidetasuna eta kohesioa sustatzen zuten ekintzak egin zituzten gure proiektu honetarako.

Aste bat eduki zuten ekintzak egiteko eta gure institutuko ikaskideek hizkuntza eta kultura Europear desberdinak ezagutzeko aukera izatea zen Europar astea honen xede nagusia. Lehenik eta behin, gelaz-gela joan ziren gai hauei buruzko hitzaldiak ematen. Ondoren, jolas garaian jolasak prestatu zituzten, ikasleek jolas aldian egin zitzaten. Ekintza hauekin guztiekin gure ikaskideak gai honetaz arduratuta daudela frogatu zuten.

Ez zuten kanpaina hau burutzeko laguntzarik behar izan, baina hainbat ikaskide behar izan zituzten Itsasoren powerpointa aurkezteko eta era energetikoan eta bizian hitz egiteko. Europako astean zehar, “Europako aurepegiak” izeneko lehiaketa bat antolatu genuen. Gure ikastolako ikasleek Europari buruzko argazki desberdinak atera behar zituzten. Irabazlea Aiora Lechuga izan zen, argazki original honengatik. [LEHIAKETA](#)

Gainera galdera sorta batzuk prestatu zituzten Europar Batasuneko hizkuntzei buruz. Ikasleek EB-ko leloa hizkuntza ezberdinetan irakurriko dute eta zein hizkuntza den zein asmatu behar izango dute. Hizkuntza batzuk oso konplexuak dira, beraz, ez da erraza izango. Poster bat, mahai bat eta fotokopiak prestatu genituen eta gainerako ikasleak patiora zihoazenean, parte hartzeko eskatu genien; fotokopia guztiak beteak izan ziren. Hau da ikasleei heman genien galdera sortu, baita egun horretako argazki batzuk ere. [GALDEKETA](#)

Honetaz gain, olerki eslovenir bat ere euskarara itzuli zuten. “Riba” (arraina) olerkiko esaldi eta hitzak banandu eta olerkia berridatzi zuten. Hasieran ez zuten hitzik ulertu, baina, [hemen](#) begiratu ostean, zenbait gauza ikasi zituztean eslovenieraz. Hau egin ondoren, olerkia euskarar itzuli eta emaitza komentatu zuten.

Hona hemen poema eta zenbait argazki. [OLERKIA](#)

OIHANE:

Oihaneri egokitutako zatia, proiektuko horma irudia egitea izan da. Honen bidez gazteei ingurumenaren alde egiten duten ekintzetan eta ekitalditan parte hartzera bultzatzatu nahi da.

Horma irudia osatzeko eskuz eginiko irudi bat eta eslogan bat erabiltzea pentsatu zuen. Irudiari dagokionez, Lurra hondaturik eta gaixorik dagoen marrazki bat egitea erabaki zuen; horrela, gure ekintza arduragabeak gure planetan eragiten ari diren ondorio latzak azaldu nahi ditugu. Taldeekideen artean zenbait eztabaida izan ondoren, adostutako slogana hau izan zen: Bakarra da, berdetu ezazu!

Zenbait kideren laguntzarekin, esaterako Jon eta Jonanenarekin, eskuz eginiko marrazkia eskaneatu zuen eta *Canva* izeneko aplikazio baten bitartez gure horma irudia osatu genuen. Hasieran lan erraza zirudien baina horrelako lanetan esperientzia gehiegi ez zuenez, zenbait arazorekin egin zuen topo, hala ere, erraz lortu zuen hauei aurre egitea. Lan honen bitartez zabaldu nahi zen mezua argi eta garbi azaltzea lortu dugula esan genezake.

Horma irudia bukaeran jarriko dugu gehigarri gisa.

UXUE:

Uxuek aldaketa klimatikoari buruzko iragarki bat egin behar zuen. Honen helburua jendea egungo planetaren egoeraz ohartaraztea eta aldaketa hau nola ekidin dezakegun helaraztea da.

Lehenik eta behin, copyright gabeko bideo batzuk bilatu zituen. Ondoren, lau gelakideren laguntza behar izan zuen aktore lana egiteko eta azkenik gidoia idatzi zuen. Ondoren, eszena batzuk filmatu eta editatu zituen. Azken atal hau lan nekeza izan zen Uxuerentzat, kontuan izanik ez dela profesionala, eta institutuko lanak direla medio.

Hau da Uxuek egindako iragarkia. [IRAGARKIA](#)

AITOR:

Aitorrek klima aldaketaren aurka edo ingurunearekin lotutako beste edozein arrazoiengatik borrokan ari diren hiru pertsonen elkarrizketa bat egin zien. Hizlaria gaztea izan behar zen eta hori izan zen Aitorrek jendea bilatzerakoan izan zuen arazorik handiena, berak ezagutzen zituen aukera guztiak zaharregiak baiziren. Hala eta guztiz ere, eta Oihaneren laguntzaz, Julen Uribe ezagutu zuen, hondartzako zaborrari buruz elkarrizketatutako mutila.

Elkarrizketako galderak prestatzeko, Aitorrek galdeketa orokor bat egin behar izan zuen, nahiz eta berak bakoitzarentzako galdera espezifikoak egitea nahiago. Galderak egin ondoren, elkarrizketatu behar zituen pertsonekin gelditu zen eta informazio guztia jaso ondoren, era zuzen eta txukunean idatzi zuen. Hau bukatu ondoren elkarrizketak hiru hizkuntzetara itzuli zituen, gure gelakideen laguntzaz.

Hauek dira Aitorrek egindako elkarrizketak. [EUSKARAZ](#) / [GAZTELERA](#) / [INGELESEZ](#)

ALVARO:

Alvaroren ardurapean dagoen zatia ekintza da. Egin zuen ekintza ikerketa txiki bat izan zen, eskolako patioan eguneroko zakar kopuruari buruzkoa. Zakar kopurua eta mota zenbatuko dugu 8 gune desberdinetan egun batzuetan zehar. Gure xedea ikasle guztiak egunereko zakar kopurua zenbatekoa den koturatzea da eta birziklatzeari buruz pentsatzea hori egin baino lehen, horrela, zakar kopurua murriztuko dugu.

Zenbait ikerketa egin ondoren, amaitu behar izan genuen azterketak gerturatzen ari zirelako. Zenbait xehetasun zeuden kontuan hartu behar izan genituenak, adibidez, ostiraleetan garbitzaileek garbiketa orokorra egiten dutela eta horrexegatik patioan zakar gutxiago dagoela egun horietan. Gainerako egunetan institutuko barnekaldea besterik ez zuten garbitzen.

Ekintza hau oso erabilgarria izango da datorren urtera begira. Hurrengo urtean, beste ikasle batzuk ikerketarekin jarraituko dute eta ikusiko dute zer ondorio izan duen gure lanak. Espero dugu zakar kantitatea gutxienez %30-ean jaistea. Nahiz eta egin dugun lana zaila izan den, ahal izan dugun onena egin dugu ikasleak beraien influentziaz konturatzeko.

Umeeekin ekintza bat ere egin genuen. Ekintza honetarako eskatu genion DBH-ko klase bati gurekin etortzeko gai honekin zerikusia zuten joku batzuetara jolastera; pentsatu genuen humeak zirenez jolasak egitea hoberena zela haien interesa lortzeko. 4 talde egin genituen, bi talde tic-tac-toe jolastukon zuten eta bewsteak hizkuntzen leihatekta egingo zuten. Tic-tac-toe jolasteko uztail betzuk jarri geniotuen lurrean taldeetatik urruti, Galdekete bat egin genien gazteei ingurumenari buruz, eta erantzuna esaten zuen taldea korrika jungo zen uztailletara eta peto bat jarriko zuten; azkenean talde batek hiru lerroan egingo zuten.

Oso ekintza dibertigarria izan zen, ikasle guztiek parte hartu zuten eta gure klasetik Oihane, Jonan eta Jon joan ziren.

Gure ekintzaren barruan sartu nahi izan genuen super heroi bat: The Green Puchu proiektuko irudi izateko. Hainbat bideo grabatu genituen honen inguruan; ikusi nahi izanez gero hemen dituzue linkak: [SKETCH 1](#) / [SKETCH 2](#) / [SKETCH 3](#)

Pertsonai honek lehenago aipatutako ekintza guztietan hartu du parte ikasleak gure ekintzetara gerturatzen eta ingurumenaren alde egiten. Gainera instagram kontu bat sortu genuen gazte jendearengan gertutasun gehiago lortzeko eta eginiko bideoak partekatu ahal izateko, hoietako batzuk ikaragarritzko arrakasta izan dute ikastetxeko ikasleen artean. Hemen duzue gure instagram kontuaren helbidea: @thegreenpuchu

MIREN:

Nik, Miren, egindako lan guztia biltzen duen dokumentu bat egin dut. Dokumentu honetan, bakoitzak egindako lana biltzeaz gain, proiektuaren prozesua azaldu nuen. Hau egin ahal izateko, nire gelakideei haien zatia laburtzea eskatu nien; argibide batzuk eman nizkien, laburpena nik nahi nuen erara gelditzeko:

1. Zeri buruzkoa da?
2. Jasotako informazioa laburtu eta azal ezazu.
3. Zure lanaren prozesua azaldu.
4. Nork lagundu zintuen?
5. Zer arazo eduki zenituen?

Sarrera bat idatzi eta nire gelakideek idatzitako testuak aztertu ondoren, dokumentua sortu nuen. Kide guztiak haien laburpenak idazten egoteak asko langundu ninduen.

Nire lanaren zatirik zailena dokumentua hiru hizkuntzetara itzuli behar izatea izan zen. Nire kideek laburpenak ingelesez idatzi zituzten eta, nahiz eta batzuek beren testuak itzuli, laburpen gehienak nik itzuli nituen euskara eta

gaztelerara. Hala ere, Olatz eta Uxuek asko lagundo ninduten testuak labutzeko unean.